

Getariako gastronomia aparta



Getaria Gipuzkoako kostaldeko udalerrri bat da, Urola kostako eskualdean. Mundu mailan ezaguna bere historia eta gastronomiari esker.

Gauza aipagarri bat ere, bertan dagoen San Anton mendia da, izan ere lehen irla bat zen eta gaur egun leku aparta da itsasorantz dauden ikuspegiak gozatzeko bertan dauden zenbait leku ezberdinetatik . Honen babespean daude 2 hondartza, bat olatu handiekin eta bestea berriz itsaso barearekin, itzelak erlaxatzeko.



ZAPORE BERRIEN BILA

Getaria pentsatze hutsarekin txakolina datorkigu gogora. Hori ez da gaur egungo kontua, izan ere, 1571n Getariako txakolina penintsulako ardorik onenen artean aipatzen zuten. Bertako txakolina txurria da, fruta-gustukoa. Bertako arrainaren lagun ezin hobea, konbinazio aparta osatzen dute parrillarekin.

Getariako arrantza ere aipatzeko zerbait da . Arraia Getariako portuan salerosten da, portu hau babes portu paregabea da eta ezaguna baxurako arrantza porturik garrantzitsuenetarikoa bai da. Historian zehar garrantzitsua izan da, aspaldian portutik lortzen ziren herriarentzako janaria eta dirua. 23 Baxurako itsasontzi , 150 txibitero eta 30 yateen babestokia da

● ELKANO

Herrerieta kalea 2
20808 — GETARIA
943 14 00 24

www.restauranteelkano.com

13:00–15:30 eta 20:30–22:30



Kaia- Kaibe herriaren erdian dago kokatua eta mitxelin izarra du. Bataz besteko prezioa 60€ dira eta 120 pertsonentzako lekua dago. Bistak portura begira ditu eta antzinako itsasoarekin zerikusia duten apaingarriak ditu. Batik bat txangurrua parrillan nabarmentzen da, baina, haragia ere ez da atzean geratzen, edateko ardoa eta txakolina dira nagusi. Leku aproposa zita berezientzako.



● IRIBAR

Nagusia 38
20808 — GETARIA
943 14 04 06

13:00-15:30 eta 20:00-22:30



Elkano jatetxeak mitxelin izar bat du 2014tik. Oso ezaguna da bere parrillarengatik, batik bat, rodabailua eta kokotxak nabarmentzen dira, txakolinaren laguntzarekin. 80 pertsonentzako lekua dago eta batez besteko prezioa 85€ dira. Familiartean, lagun artean eta lan zita batean joateko aproposa. Dekorazioa eta zerbitzua apartekoa da eta gastronomia maila oso ona.

● KAIA-KAIPE

General Arnao 4
20808 — GETARIA
943 14 05 00

<http://www.kaia-kaibe.com/>

13:00–16:00 eta 20:00–23:30

Iribarrek Euskal Herriko janari tradizionala eskaintzen dizu kalitate handiko arrain eta mariskoa emanaz, izan ere arrain freskoa eta denboraldiko bakarrik sukaldatzen dute. Ingurune erakargarria du eta itsasoarekin zerikusia duten apaingarriz betea dago. Eguneroko menua 25-50€-koa da. 70 pertsona inguruko lekua dago.

Akarregi txiki tradizio handiko upategia da. Izan ere, baserrian belaunaldiz belaunaldi egin dute txakolina aspalditik. Txakolindegian zehar bisita gidatu bat egiteko aukera paregabea eskaintzen dute upategian zehar. 50 pertsona inguruko lekua dago bertan eta leku erakargarri eta tradizionala da, batez besteko prezioa 25€ dira.

● TXOMIN ETXANIZ

Txomin Etxaniz upeltegia
20808 — GETARIA
943 14 07 02
<http://www.txominetxaniz.com/eu/>

GETARIAKO TURISMO BULEGOA

Gudarien Enparantza kalea
20808 — GETARIA
943 14 09 57
www.getaria.net
10:00- 13:30 eta 16:30- 19:30



● AKARREGI TXIKI

Txakoli Akarregi Txiki
20808 — GETARIA
635 730 034
<http://www.akarregitxiki.com/>

Txomin Etxaniz txakolindegia irekita dago bisitatu nahi duten guztientzat eta txakolina arrantzan oinarritutako beste gastronomiako produktuekin batera dastatzeko aukera dago. Bertan 3 txakolin ezberdin lantzen dira, baina guztiak oso onak. 40 pertsonako lekua dago eta bertako ikuspegia gozatzeko aukera dago, izan ere oso ederra da.

IRENE ETA BEÑAT

